

OT-001-2016

**Gaia:** Bilbo Metropolitarrako Eremu Funtzionalaren LPParen berrikuspenaren hasierako onespena

**Asunto:** Aprobación Inicial de la Revisión del PTP del Área Funcional de Bilbao Metropolitano

Iradokizun zenbakia: 50  
Nork aurkeztu du:  
**Real Sociedad de Golf de Neguri**  
Aurkezpen data: 2022/02/09

Sugerencia N°: 50  
Presentada por:  
**Real Sociedad de Golf de Neguri**  
Fecha de presentación: 09/02/2022

## IRADOKIZUNAREN LABURPENA

1. Adierazten da La Galeako golf-zelaiaren jarduera 1961. urteaz geroztik garatu dela. Indarrean dagoen udal-plangintzaren arabera, lurzoruak araubide erkideko urbanizaezin gisa sailkatuta daude gaur egun, eta onargarria da aipatutako kirol-jarduera egitea. Hala ere, indarrean dagoen LPPak "Basoko" gisa sailkatzen du, "Landa-ingurunearen Babesa" araubidearen pean, eta horrek bateraezin bihurtzen du gaur egungo erabilerarekin.

Azaltzen da zer kontraesan dituzten indarrean dagoen LPPak eta gaur egungo berrikuspenak gainerako lurralde-plangintzarekin:

- LAGek "Interes natural multifuntzionaleko espazio" gisa sailkatzen dute, eta, hala, onargarria da gaur egungo erabilera, hau da, aisialdi intentsiboa.
- Nekazaritza eta Basozaintzako LPSak "Trantsizioko landa-paisaia" gisa jasotzen du, eta, alde horretatik ere, onargarria da gaur egungo erabilera; aisialdi intentsiboa, alegia.

Ohartarazten da ez dela zuzendu irudikapen grafikoan dagoen akatsa, zeina Aurrerapenean jada detektatu baitzen, eta, beraz, zuzentzeko eskatzen da, gaur egungo erabilera bateragarria izan dadin.

2. Adierazten da "irudikapenean dagoen akatsa", zuzendu ezean, ekarriko duela indarreko HAPOak antolamendutik kanpo uztea guztiz finkatuta dagoen erabilera, zeina bateragarria

## RESUMEN DE LA SUGERENCIA

1. Se manifiesta que la actividad del campo de golf de La Galea se ha venido desarrollando desde 1961. Que conforme al planeamiento municipal vigente se trata de terrenos actualmente clasificados como no urbanizable de régimen común, siendo admisible el desarrollo de la actividad deportiva mencionada. Sin embargo, el PTP vigente lo categoriza como "Forestal" bajo un régimen de "Protección del Medio Rural", lo que hace incompatible el actual uso.

Se exponen las contradicciones del PTP vigente y su actual revisión con el restante planeamiento territorial:

- Las DOT categorizan el ámbito como un "Espacio de interés natural multifuncional", siendo admisible el actual uso de recreo intensivo.
- El PTS Agroforestal lo recoge como "Paisaje Rural de Transición" resultando también admisible el actual uso de recreo intensivo.

Se advierte de que el error en la representación gráfica ya detectado en el Avance no se ha corregido y, por tanto, se solicita su subsanación, de manera que el uso actual sea compatible.

2. Se señala que el "error de representación", de mantenerse, abocará al vigente PGOU a dejar en fuera de ordenación un uso plenamente consolidado y compatible con los usos urbanísticos previstos hasta la fecha.





baita orain arte ezarritako hirigintza-erabilerekin.

Konfiantza legitimoaren printzipioa, administrazioaren fede onaren printzipioa eta legezketasunaren printzipioa aipatzen dira, eta adierazten da lurzoru urbanizaezinaren babes- edo babesgabetasun-maila errealitate materialaren arabera dela.

Azkenik, lurralde-antolamendurako gainerako tresnekiko kontraesanak gogorarazten dira (LAG, Nekazaritza eta Basozaintzako LPS), ez baitute kontuan hartzen babes bereziko inolako mailarik.

Beraz, La Galeako golf-zelaiari emandako kategoria aldatzeko eskatzen da, gaur egun finkatuta dauden erabilerak kategoria horrekin bateragarriak izan daitezen.

Se invoca a los principios de confianza legítima, de buena fe administrativa y de legalidad, y se señala que el nivel de protección o desprotección del suelo no urbanizable viene dado por la realidad material.

Por último, se recuerdan las contradicciones con el resto de los instrumentos de ordenación territorial (DOT, PTS Agroforestal) que no contemplan nivel alguno de especial protección.

Por tanto, se solicita que se modifique la categoría otorgada al Campo de Golf de La Galea a los efectos de contemplar como uso compatible con la misma los actuales usos consolidados.

## IRADOKIZUNARI EMANDAKO ERANTZUNA

1. Lurralde Plan Partzialaren Berrikuspenaren hasierako onespenerako dokumentuak Nekazaritza, Abeltzaintza eta Landazabala gisa kategorizatzen ditu (Trantsizioko Landa Paisaia azpikategoria) golf-zelaiaren azalera gehiena, Babes Bereziko kategoria ematen zaien eremu txikiak izan ezik, LAGen Aplikazio Arauen II. eranskinean kategoria horren definizioarekin bat etorriz.

Horrela, LPParen berrikuspenaren hasierako onespeneraren dokumentua bat dator LAGekin, eta Nekazaritza eta Basogintzaren LAParekin ere, iradokizunen idazkian azaltzen den bezala.

Alde batetik, “funtzio anitzeko natura-intereseko gunea” izena ez da antolamendu-kategoria bat, LAGek definitutako azpiegitura berdearen gainjarritako baldintzatzaile bat baizik. Irizpide orokor gisa, gainjarritako baldintzatzaileek ez dute erabilera jakin bat arautzen, baizik eta erabilera garatzeko baldintzak ezartzen dituzte.

## CONTESTACIÓN A LA SUGERENCIA

1. El documento para aprobación inicial de la Revisión del PTP categoriza como Agroganadera y Campiña (subcategoría Paisaje Rural de Transición) la mayor parte de la superficie del campo de golf, salvo pequeñas áreas a las que se les otorga la categoría de Especial Protección, de conformidad con la definición de dicha categoría contenida en el anexo II de las Normas de Aplicación de las DOT.

Así, el documento de aprobación inicial de la Revisión del PTP no entra en contradicción ni con las DOT, ni con el PTS Agroforestal, tal y como se expone en el escrito de sugerencias.

Por un lado, la denominación “espacio de interés natural multifuncional” no es una categoría de ordenación sino un condicionante superpuesto de la infraestructura verde definida por las DOT. Como criterio general los condicionantes superpuestos no regulan un uso determinado, sino que establecen las condiciones en las que el uso se debe desarrollar.






Bestalde, Nekazaritza eta Basogintzaren LAPak Trantsizioko Landa Paisaia gisa sailkatzea ez dago kontraesanean mugatutako azalera horren gainean Babes Bereziko eremu batzuk egotearekin (baso autoktonoak, komunitatearen intereseko habitata, hegaztiak linea elektrikoetatik babesteko eremuak eta Interes Geologikoko Lekuak identifikatzearen emaitza); izan ere, LAP horren 46. artikularen arabera, LAGen Babes Bereziko kategoria ez da berariaz mugatzen LAP honetan, LPPen eta udal-plangintzaren zeregina baita.

Por otro lado, el hecho de que el PTS Agroforestal lo categorice como Paisaje Rural de Transición no entra en contradicción con que sobre esa superficie delimitada haya unas áreas de Especial Protección (resultado de la identificación de los bosques autóctonos, hábitats de interés comunitario, Zonas de protección de aves frente a tendidos eléctricos y Lugares de Interés Geológico), ya que de conformidad con el artículo 46 de dicho PTS la categoría de Especial Protección de las DOT no se delimita específicamente en este PTS, al entenderse es cometido de los PTP y del planeamiento municipal.

Jarraian, golf-zelaiaren barruan dauden babes bereziko elementuak identifikatzen dira:


A continuación, se identifican los elementos de Especial Protección incluidos dentro del campo de golf:



Bosques autóctonos: Tres zonas de arbolado correspondiente con: Bosque acidófilo dominado por Quercus robur y Bosques naturales jóvenes de frondosas.

Baso autoktonoak: Zuhaitzez osatutako hiru eremu: Quercus robur nagusi den baso azidofiloa eta hostozabalen baso natural gazteak.






Hábitats de interés comunitario: Zona de arbolado situada en el sureste del ámbito  
Komunitatearen intereseko habitatak: eremuaren hego-ekialdean kokatutako zuhaitz-eremua

Golf-zelaiaren erabilera onargarria da trantsizioko landa-paisaiaren azpikategorian eta bateragarria da zuhaitz-eremuekin (Babes Bereziko Eremu gisa sailkatuak, II. eranskineko 2.a.1 atalaren arabera); izan ere, kirol-jardueraren garapenak ez du eragin negatiborik eremu horien kontserbazioan.

El uso de campo de golf es un uso admisible en la subcategoría de Paisaje Rural de Transición y compatible con las zonas de arbolado (categorizadas como Especial Protección en aplicación de las DOT-anexo II, apartado 2.a.1), dado que el desarrollo de la actividad deportiva no afecta negativamente a la preservación de estas áreas.



Zona protección aves frente a tendidos eléctricos: Franja situada en el noreste del ámbito.  
Hegaztiak linea elektrikoetatik babesteko eremua: eremuaren ipar-ekialdean dagoen zerrenda.






Azken eremu hori Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Aginduak arautzen du, eta aireko espazioan linea elektrikoak jartzeko instalazioen garapena baldintzatzen du. Agindu horrek goi-tentsioko aireko linea elektrikoak bakarrik eragiten die, eta, beraz, ez zaio zuzenean aplikatzen golf-zelaiaren erabilerari.

LPPa behin-behinean onartzeko dokumentuan, hegaztiak babesteko eremu horien deskribapena egokituko da, eta argituko da kategoria horrek babes berezia ematen diola dagokion bilbearekin grafiatutako lurzoruen gainean dagoen aireko espazioari.

Esta última zona viene regulada por la Orden de 6 de mayo de 2016 de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial y condiciona el desarrollo de instalaciones de tendidos eléctricos en el espacio aéreo. Esta Orden afecta únicamente a las líneas eléctricas aéreas de alta tensión, por lo que no es de aplicación directa al uso del campo de golf.

En el documento para aprobación provisional del PTP se adaptará la descripción de estas zonas de protección de aves, aclarando que esta categoría dota de especial protección al espacio aéreo situado sobre los suelos grafiados con la correspondiente trama.



Lugares de interés geológico. (Zona grafiada con trama rayada)  
Interes geologikoko lekuak. (Grafiatutako eremua bilbe marratuarekin)

Interes geologikoko lekuen deskribapena egokituko da, eta argituko da kategoria horrek babes berezia ematen diola dagokion bilbearekin grafiatutako lurren zorupeari. Babesa lurpera mugatzen denez, ez du eraginik golf-zelaiaren egungo erabileran, lur gainean garatzen baita.

Se adaptará la descripción de los lugares de interés geológico, aclarando que esta categoría dota de especial protección al subsuelo de los terrenos grafiados con la correspondiente trama. Dado que la protección se limita al subsuelo, no afecta al uso actual del campo de golf, que se desarrolla en superficie.





2. Ondorioz, ezin da golf-zelaiaren kategorizazioa aldatu babes bereziko elementuei dagokienez, LAGetan ezarritako irizpideetan oinarritzen baita. Hala ere, egungo erabilera finkatuak bateragarriak dira kategorizazio horrekin, txosten honen 1. puntuaren egindako kontsiderazioen arabera.

2. En conclusión, no es posible modificar la categorización del campo de golf en lo que se refiere a los elementos de Especial Protección, dado que se basa en criterios establecidos en las DOT. Sin embargo, los actuales usos consolidados son compatibles con esta categorización, según las consideraciones realizadas en el punto 1 del presente informe.

## LURRALDE GARAPENERAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA LA DIRECCIÓN GENERAL DE DESARROLLO TERRITORIAL

